

# anaitasuna

Urtarrilla-Zezeilla (1-2), 1965 — XI URTEA — Núm. 121 — Dep. Leg. S.S. 1092-1959 — Zuzendaritza: Bilbon. — Arantazuko Irarkolan.

- \* MARTIAREN ZAZPIAN
- \* 500-MKO KAMIÑO A SEI ANDREK JASO
- \* VIETNAM-GO BAKERIK EZA
- \* 1964-TZAZ OROITUKO ZARA...
- \* ERRIAK ETA ERRIA

## Zenbaki onetan

- \* AGUR SIR WINSTON CHURCHIL...
- \* KONZILIOA LANGILLEEN ONERAKO
- \* BERTSOLARITZA BIZKAIAN
- \* GERTU BAKO EZKONTZAK
- \* EZ IZAN BILDURTI...

kendu egiten gendun, —kontu-  
rafu barik— ango edozein go-  
muta kendu naiezko seiñale  
bat bailitzan, bearbada.

Dana dala, orain benepein

goitik bajatorkuz erreztasu-  
nak. Gertatuta ba ete gagoz?  
Gitxienez egin daikeguna da  
portaera zabal eta igidi bat  
artu jatorkuzan eleiz aldake-

## MARTIA'ren ZAZPIAN

Aldaketa edo kanbio asko nabaritu geinkez gure eleizetan martiaren zazpitik aurretzean. Dakigunez, Konzilioari zor deutseguz. Ba dakizue oingorako guztiok Konzilioko eztabaidak zelakoak izan diran —eta zein gogorrek askotan, areik ez eutselako egari bildurrik!—

Eztabaida edo diskusio orreitariko asko Liturjiari buruzkoak izan ziran an.


Aldaketa oneik, Konzilioko eztabaida eta eleiz-gizonen artzai-bierraren konzientzi-arte sakon ta benetako bat lez agertutén jakuz orain, praktikan imifñi bear doguzanean.

Aita Santua, gotzaiak eta apaizak betidanik jakin izan dabe Kristautasuna dotriña bat baiño geiago BIZITZA bat dala. Baiña gaurregun argi-ago erakutsi gura izan deus-

kue borondate oneko gizon guztiori.

Bizitza bada, ba, bizitza lez bizi bear dogu. Ezin geinke ezetara be ukatu Kristautasuna misterio bat danik, egia da-ta. Baiña onek ez dau esan gura gero meza (esate baterako) inork ez ulertzeko moduan, "misterioan" esan leitekenik.

Ezin leiteke, ez, Baiña oraiñarte, gizaldiak dirala, pekatu au jenerala izan da gure artean. Orregatik, meza —esate baterako diñot— domeketan ordu erdiko arazoa zan. Pekatua be ba zan-da..., errian danak egiten eben bardin-da..., joan egiten giñan mezatarra ba jaiero. Besterik ez askotan. Ez gendun bizitzara eroaten, ez genkian zelan eroan be-ta. Gaiñera, eleizatik urtekeran, belaunetako autsa be



# 500 m.-ko kamiñoa 6 -sei- andre arte arte jaso

Eztegutako baskal ostean igaro zan dana. Postreen arteko berriketan posture bat azaldu zan, askotxok benetan artu ez eben postorea. Ta jakiña. "Janaria neurrian ta ardaumoria gañean".

Dana dala, itsumustu makala andik egun gitxi barru Ugeni, Tere, Kuka, Lola ta Mertxe esku lanean ikusi genduzenean. Rio ta Perales deritxoen erritxi biak kamiñoaz alkartu bearra bazan, antxe Ponteijos'ko urtekeran berbertan.

Ez eben gogo txikia be izan andrakote onexek gero... Izan be —uste eben— euren errian gauza asko bide obean jarri beartsu edo aberatzak bizitza leunagoa izan eien. Ta ortarako Ugeni, Tere, Kuka, ikeezanela danak, naiz aundi edo txiki, Lola, Makalen ta Mertxe optimista amorratuak bai ziran izan be!

—Ille baten gauza asko zuzendu litekez.

—Miñekin bai. Baiño izatez...

—Baita izatez be. Ta, esate baterako, ayuntamenduak urte askotan konponduten ez deuzen gauzak.

Ta esan ta egin, gero... ze illearen barruan amaitu eben kamiñoa. Bosteun metroko kamiño galanta! Ta egin be eurak bakarrik arri ta lurra pikatxoi ta palakin landuaz. Seguru asko trebetasun

txalogarri orrekin gizon askoren esku jausiak lortu ez dabena lortu dabe.

Ta gaiñera etxeko arazoak beteteko be izan eben naiko denpora. Baita txantxetarako be. Ondoren, postorean jarritako mugak oba eziñean gorde be bai... zegaitik gizonen laguntza barik egitea erabaki eben, ta ez ziran bizar bakoak andra onek emondako berba gordetako. Beno —sintzoago jokatutiarren— gizon mordosko batzuek urreratuten zirala esan bearra, ta —batez be— an zegon Errefel Soto lanaren akatxak zaintzeko. Euren senarrak, au jakiña, iribarre ta pozez ondoratuten jakezen eta lantzian bein baita piku edo pala bateri eskua emon. Baiño ori bai "ordubete, or-amen egunero; ta bakar bakarrik geure senarrak" —eurak diñoenez.

Gaurtik aurrera Ponteijos baserritxoak kamiño barria dauko. Erdi ipuñ-barrez egindako kamiñoa. Baiño trinko ta zuzena, ur-txoko bako bidea. Diputazio ta Munizipioari, baita Españiko nagusi guztieri, kamiñoak era askotan konpondu leitekezela erakutsi bai deutsoe argiro enbra onexek!

Gauz bera pentsaten dau Ponteijosko taxistak Mertxe, Kuka, Makalen, Tere, Lola ta Ugenik egindako kamiñoa igarokeran.

Ta gero andrak direla-ta ibilliko gara!

## MARTIA' ren ZAZPIAN

### 1' orritik

ta guztien aurrean. Orain datozenekin ez dira amaituten. Geiago be etorriko dira aurrerantzean apurka-apurka, orai-goko au asiera bat baiño ez da-ta. Gure onerako dira al-daketa onek guztiok, ez da du-darik. Kontuan artu bear dogu bein da betiko Kristautasuna ez dala au edo ori gala-soten deuskun agindu bat, Kristautasuna ez dala "Jainkoaren legeko aginduak" bakarrik. Ez dala dotriñan, txikitian, ikasitako kristau-ikas-bidea. Kristautasuna bizitza da. Benetako bizitza.

Eta aldaketa oneik, bizitza lez artu daigun lagundu egin-go deuskue. Askio izango dira kanbioak. Bi bakarrik ikusi daiguzan emen —azaletik—,

esandakoa baiezteko-edo. Ara:

Orainarte, ezkontzako sakramentua amarra bat lez artzen eben askok, orregaz betirako alkar-bizitzaren pixua bizkarreratuten ebela ezkonbarriak pentsetan eben. Orain —aldaketari eskerrak— errezago ikusi aal izango dogu, ezkontza-bizitza onez eroateko Jainkoaren indarra eurganatu-tea dala. Orainarte, Meza, betekizun bat baiño etzan askorentzat; mezarara ez joatea, pekatua. Errezago ikusi daikegu orain zelan eta zergaitik dan meza ori gure kristau-bizitzaren oiñarria. Etabar. Baiña orretarako derriorrezkoa da geuk be, geure alde-tik, aal doguna egin daigula,

gauzak alan dirala ikusteko. Ostantzean, naiz ta goitik deadar egin, guk entzun gura ez badogu, zertarako? Utsa... Sarritan esan da entzun gura ez duana baiño gorragorik ez dagoala. Ta arrazoia galanta bai politikan, bai eleiz-arazotan!

Orrezaz gaiñera, eleizkizunak lortuagoak gertatu daitezcan, euskeraz emongo jaku Jainkoaren berbea. Izan be, esate baterako, "Berba-liturjia" deritxon mezaren lenengo zati ortara ikastera goaz. Jainkoak berba egiten deusku or. Ulerituteko moduan egin daiala ba orduan! Ta bai, euskeraz egingo baideuskue guri, or entzundakoa gero bizitzan biurtu daigun.

Zergaitik euskeraz? Esan dogunagaitik, lenengo. Ta Jainkoa gizonari moldatuten jakolako, bakoitxari bere egoera konkretuan. Norberari bere bizi moldean adierazi gura izan deutso beti bere maitasuna Jainkoak.

"Jainkoaren bideak, ez dira gizonenen antzekoak" diño Berak Idazti deunean. Orregaitik atan be, askok egiten dabe baiña, Berak ez. Ez dau Jainkoak euskera baztertu gura. Ez dau gura. Ez daigun ba guk orrelakorik egin. Jainkoak ala gure-ta, euskerari eusteko betebearra dogunok.

Betebear sakratu bat daukogu euskaldunok!

## VIETNAM-GO

### BAKERIK

#### EZA

Zoritxarrez baiño periodis-  
tentzat, berritxoentzat pozga-  
rri ei da Vietnam, beti emote-  
ten ei dau zer esana ta. Sarri-  
tan problema orretzaz aaztu  
gareala emoten dogu, ta bat  
batean jeneralen bateri buru-  
ratu jakola ta or dogu egu-  
neroko guztietan —lerro aundia-  
kin gainera— ango injusti-  
zien barri.

#### VIETNAM-DARREN NEKEAK

Sarritan galdetuten azi naz  
ia an gertatuten diren gauze-  
kin Vietnam-darrak zer iku-  
sirik ba dauken edo. Ezetz  
esango neuke, komiko itxura-  
tu arren be. Ta gauza komi-  
koa laster azalduko deusut,  
noski. Ipar-ameriketa. eta  
Errusi aundia munduko jabe-  
tasuna zaintzen zur ari dire,  
baiño euren indar neurketa  
aurrez-aurre azaltzea balitza  
izango litzakioe. Non azertu-  
ko dituez ba euren guda tres-  
nak? Bada ezpadan be etxe  
ingurutik urrun ta —esate  
baterako— Vietnam'en. Ta  
dana demokraziaren, egiaren,  
justiziaren eta gogai aundien  
izenean! Bitartean pagau daie-  
la Vietnam-darrak, Kongota-  
rrak ta beste askotxok Errusi  
ta Amerikanoen guda tresnak  
neurtuten diren artean. Bear  
bada. Ipar-ameriketako. eta  
Errusi'ak China artzakotzat  
artuko balebe gauzak konpon-  
du eziñekoak elitekez izango  
baiña... atsegiñago da beti  
mundua biren artean erdiba-  
natzea askoren artean baiño.

#### JENERALEN JOKUAK

Ta lotsagarria benetan —au  
bai egia— ango jeneralen jo-  
ra ikustea. Ego Vietnam'en  
gogor dabiltz Vietcong'eko gu-  
dariak ta bitartean, ezer ger-  
tauko ezpaltz lez, jeneralak  
konpondu eziñean. Ta ain zu-  
zen be ez gudara nork joan  
bear dauan eztabaidatzeko, go-  
bernua norean izan bear dau-  
an eztabaidatzeko baiño. Ta  
ori, jakiña, zuzentasunaren ta  
libertadearen izenean. Ori bai,  
ez daitela falta.

Ango arazoak eta odol ixul-  
tzeak konpontzeko bide ego-  
kienak danak dakiez; baiña  
indar eta ardura andiena dau-  
kienak ez dabe alegin batere  
egiten.

Batez be amerikanoak.

#### URTARRILLA

Pancow'en gobernuak iga-  
robide apartekoak emoteu  
dautsee Oesteko berlindarrerri,  
“muralla” igaro daien estura  
garaian.

#### MARTIA

De Gaulle-en gobernuak  
China-ko Erkalderrria azterka-  
tuten dau.

Jak Ruby —Kennedy-ren  
eriotzaillea— aulki -eletriko  
ra kondenatuten dabe.

#### JORRAILLA

Belgikako sendagilleek ahol-  
ga bat jaso dabela-ta, ango  
Gobernuak soldadutzako sen-  
dagilleen bearrean jarten dire.

#### MAIATZA

2 egunean New York-ko Fe-  
ri mundu guztikoa idegiten  
da

#### BAGILLA

Valdeajos-ko zuloak petro-  
liua emoten dau.

China ta errusiatar komu-  
nisten ikusi-esiñak ezfuera zai-  
llagoan jarten dire.

#### GARAGARRILLA

Jhonson Ipar-ameriketako  
Lendakariak Kennedy-k era-  
karritako “Derechos Civiles”  
eritxoen Lege burrukatuak  
firmaten ditu.

#### DAGONILLA

“Derechos Civiles Legea za-  
baldukeran enda burrukak ja-  
soten dira Ipar-ameriketan.

#### URRIA

Martin Luther King, Artzai  
Protestanteak, 1964-ko Nobel  
Saria irabasten dau.

1964-traz

oroituko zara

gertaera

onekin

Errusoen “Vosjod” satellite-  
ak iru pilotokin lur-irabazten  
dau.

Moises Thombe, Katangan  
Lendakaria izana Kongo alde-  
ra etorkeran ango barrukoak  
naaspillago jarriten dira. Al-  
daketa gorri onetan eriotz  
ugariak —bai gorri ta baltzen  
aldetik—. Españiko erlijio-  
soak be —iru naparrak gane-  
ra— ilketa negargarri onetan  
arkituten doguz.



## erriak eta ERRIA

Munduan barna, erri txiki asko dagoz egon, baiña ez dira izaten sarritan ondo ikusiak eta begiratuak. Zergaitik ete da au? Txikiak diralako seguritik eta ez diralako euren balioak ikusten.

Baiña gogartu dagigun apur bat. Gauza aundi ta arrigarriak asmatu ta ametstu dira Egiptoko Asuan ugaziak artzen dabezan oroigaiak salbatzeko, ta baten batzuk, beintzat, ez dira urpean geratuko gizonen alegifleri eskerrak. Zergaitik ixten da barriz, il agiñean, baztarretan, oroigai bizia dan erri txiki bat? Munduaren sorbaldan ba-dagoz antziñatik datozen erriak eta balio askokoak ganera beren oituretan, berbaketan. izakeran, kulturen.

Antziñako arri zatiak —oraingo oroigaiak— eta eurakin eginda dagozan etxe ta abarrak, balio aundia daukela danak aitortu dabe. Orain, ba-dagoz beste oroigai batzuk, bizitza agertzen deuskuenak, oraindiño bizirik dagozanak; oneek dira erri txikiak, erri aundi tartean il zorian dagozanak. Zer egiten da oroigai bizi oneegatik? Sarritan sokondoratu besterik ez, beste gauza txarragorik egiten ez bada, euren bizia munduko bakearen aurka etorriko bai litzan.

Asko be errezagoa da, antza, munduko gosea dala-ta, baltzan banatzea dala-ta, aldarrika ibiltea. Artean, problemak billa urrunegi joaten garala pentsaten dot. Etxeondoan zeregiñik asko ta auzora jo bear. Au da gizonaren patua!

Erriak ERRIA janarizat artzen dabe. Ta olan, oneek —errikoak— euren oitura, izakera ta berbaketagaz ondatzen dira sekulorum sekulako.

“Arrisku oria”-tzaz sarritsu entzuten da au edo beste, or-emen; ikusi gura neuke zer egingo genduken, txinatarrak gure ganera etorrita euren izakera, oitura, kultura, berbaketa ta abarrak, eskolaz, irratiaz, telebistaz eta ziñeaz iruntzi arazo baleuskie. Orduan ikusiko geunke nongo ta zelako mutillak garan.

Mundu guztiko laterrietan ERRI asko dagoz; eta asko, txarto egon be, geienak. Gure eskuetan dago oroigai bizi orreri bizitza barri bat eztitutea.

Penagarri leiteke, gure erruz, ain balio aundiko gauza bat galtzea.

Txapelari oratuta egoteko, ez dira egin, ziur, eskuak. Au egia da. Egi biribilla.

Ba-dakigu,, bizimodu on bat lortu arren, geldik egotea errua dala: egiari zartada bat emotea.

Ainbeste gudaren garaille izanda, azkenekoa —eriotzarena— galdu egin dau. Urtarrillaren 24-an il zan Churchill, la rogei urte igaro dan zemendian beteta. Il da gero, Westminster Hall Inglaterrako jauregi ospetsura eroan eben. Beren gorpuaren aurretik irureun milla iga notin igaro dira; politikoak iru miletik gora. Zergaitik ez da joan Jhonson, edo bere orde, Humprey? —itaundu dau mundu guztiak egunerokoetik. Beste geienak joan ei dira: De Gaulle, Eisenhower, Ludwig Erhard, Balduino, Konstantino, Federicko... t. a.

Abenduko 1874-grn. urtean Londres-ko Time egunerokoan barri txiki bat agertu zan: “Zemendiko 24-an Bleheim jauregian Lady Randolph Churchill-ek seme bat euki dau” Ez zan izan besterik. Garrantzi aundiko beste barrien ondoan ezerez bat. Ez zan agertu, ez, lenengo orrian, bazter baten baiño. Bear bada, gaur propaganda egiten dan lekuan.

Ordutik onantz urte asko joan dira, ia-ia gizaldi osoa. Ta zer diño kondairak gizon onen gain?

Eztago iñork esan bearrik Churchill gizaldi ontako estadarik aundienatarikoa izan dala. Egiztuteko naikoa da Inglaterra-ko gobernuaren arazo ta eginbearrak artu ebazaneko eguna gogoratutea. Bear bada Inglaterrako etorkizunak desbardiñak izango ziran beste bategaz. Bai, Winston Churchill-egaz gizon aundi bat baiño, aro oso bat joan jakula esango neuke.

Churchil-en bizitza edozein gizon aundiarena izan da, ziur: zail, dardartsu. Gaztetik euki eban joeran ikusi daikegu nor izan zan eta zelakoa izango ete zan bere odol gartsua. Ara bizitzan zear eukiko joera au: “IBILLI; IDATZI; GUDATU”. Ibilli, dana ezagutuaz, egia beti ikasteko. Idatzi, gogo ta egin-gaiak besteeri egiz ta kemenez erakusteko. Gudatu, bildur barik egin-gai orreek egiztuteko. Amaikatsu estatusun ta nekealdi bere bizitzan, batez be 1940-an Inglaterrako “premier” egin zanetik.

Gaur arte “leoi zar” au —alantxe deituten izan jako— azken gudako aundien arakuski eder bat izan da, noski, bada Mussolini, Roosevelt, ta Hitler guda ostein illak dira, ta Stalin urte batzuk geroago 1953-grn urtean. Egia esan, azkenengo urteetan ez dau euki zer egin askorik, zartzaroak apur bat ezereztu eban da. Baiña beti izan da alan da be izpillu garbi bat: aro gatx eta izugarritzakoetako agiri bizi bat, lenengo Inglaterrako erriarentzat, ziur; eta gero mundu guztia-arentzat. Gurago geunke benetan onelako ezpilluak ugarigoak eukitea!

Churchil beranduko agerpena izan dala esan daikegu. Hindenburg, Pétain edo Mac Arthur gaza, zartzaroan —irurogeitak urteak— igon eban goraiñoko mailletara.

Oraindik geiago. 1940-gn. urtean alemanaren gudaurka ezpazan izan, politiko erditsu bat baiño besterik ez zan izango bear bada. Orduan bai euki ebala bere nortasun gogor ta zorrotza agertuteko era ederra. Ta alantxe jokatu be eban ziur. Ondo ikusten da bere trebetasuna izkuntz artan: “Bakarrik gudatu dogu iñoiz izan dan guda-etsai gogorren aurka urte luze baten”. Difiogunez, gaur danok uste dabe Churchill egun illun eta txarretako nagusi-eroallea izan dala, bake denporakoa baiño. Orregaitik deitu jakon berari Inglaterrako arazoak ia-ia

# Winston Spencer Churchill!

jausteko egon ziranean. Orduan —irurogei ta bost urtegaz— erakutsi eban nor zan benetan. Geroago bakea etorri zanean eta bein bere egin bearrak beteta, ez eukon zer-egitunik egoan lekuan. Orregaitik lenengo auketatuketan jausi-zan leoi zar ta kementsu au. Baiña aurrerantzean ez zan izango ainbesteen arteko politiko bat. Ordutik gizaldi onek euki dauan politikorik zorrotz eta eginkorrenentzat eukiko dogu beti.

Bukatuteko, ara zer esan eban Kanterbury-ko Arzobispo Jaunak Churchill-aren gorpua Westminster Hall jauregira eldu baiño ariñago:

“Winston Churchill-ek bere bizitzako urteak barru ainbeste biar egin ebaneko “Camara” onetatik berba egiten deusuet. Gaur gabean etorriko da onantz bere gorpua, ta zapatua arte, emen, kondairako gauzik aundienak egin diraneko sala ontan egongo da. Gutariko askok gogoan izango dogu gure erria ain txarto zaneko egun aiek. Orduan Jaunari eskerrak emon geuntsazan. Orain, churchil, mundu guztiko gizon aundienetarikoa bat il jakunean, auxe esan bearrean gagoz: “Eskerrak emon deloguzan barrero Jaunari, onelako gizonak Jaunaren doai diralako”.

Ainbeste gudaren goraille  
izanda, azkenekoa —eriotzare-  
na— galdu egin dau.

## KONZILIOAK LANGILLEEN ONERAKO

Gu, kristauok, egi baten babesean arkituten gara. Ta egi au, beraz, Kristok ekarrikoa dogu. Gaur Eleiza Kristoren bitarteko da. Eta —ez uste— Eleiza lotan dagonik. Erroman izan diran gotzai jaunek ez dabe alperriko berbaketan iraun. Euren erabakiak egoki jakuz guztiori.

Begi Eleizaren jokaera gaurko prolema-tzaz:

### 1. Gure dotriñaren oñarria au da:

“Jainkoak lur onetako aberastasuna gizon guztiori opa euskun”. Amendik jatorku dā-nori jabe izateko eskubidea.

2. Onen lenengo ataletik erabaki daikegu, aurrerapenez gizon guztiok alkar-lagundu bear dirala. Eragin gizon guztiak aurrerapen arlo onetan parte artu daien. Arlo berebizikoa dogu, esatebaterako, languilleek irabazietan beren zatia izatea.

3. Muga bat idorotzen dogu, alajaiña: “Gizonen eskubideak”.

Gizona ez da lanerako bakarrik, komunistak nai daben lez. Lana gizonaren onerako, bere aunditasunerako, bere atsegintasunerako zuzendu bear da. Onela norberak bere nolatasuna beteteko garai aparta

izango dau. Iñoz ta iñolaz be ez da galdu bear gizonaren libertadea. Bultza ba au guztia bete daitean.

### 4. Azkatua beite Eleiza:

Eleizak argibideak ezarriko deuskuz guk, bai irabaztean eta bai jabe izatean Justizia eta egokitasunaren betebearra jarrai dai-gun.

### E. Eleizak eskatuten deuskuna:

“Ezbardintasuna errege dalarik ondo jokatzetik eleikegula, ta bein araso onetan Eleiza bitarteko dogunez, justizi sakon eta obe baten bidez atsedan nasaiagoa izan daigula”.

Guzti au jaritxiko baliz, gaur-egun beste era batera izango litekez gauzak.

Ba-dakit nolakoa dan zuek antxiñatik asmatu dozuen erantzuna: Nori begira dago ba Eleiza gaurko gizaldia lenbaitlen zuzenbidera moldatzeko? Ba-dakigu Eleizaren joera prolema onek konpontzerakoan. Askotan apurtu dauz desbardintasuna eta makurkeriaren ezbearrak Pildain-ek, Richaud-ek eta beste askotxok Erroman esan ebenez.

Naste onetan izendatu daikeguz mota bekoak be, Herrera, Benitez...

Eleiza, barriz, ez da sartu bear politika kontuan, argi-bidea jarriten alegindu baiño.

Gure mundu onetan asko ia gozez dagoz. Afrikako Gotzai batek diñosku:

“Zuen anai baltzak laguntza eske jatortzuez; Europan alperrik galtzen diren diru billa” Ta jakiña, afrikatarrak gure ondakiñen zai dagoz. Onela egoera larrian erri asko bi-zi dira gure artean...

Komunismoa kondenatutea ez jaku bearrrezko, Altrin-ek diñoskunez. Ia komunismo barrutian zoritxarra nabari da ugari. Eta ain zuzen ez doguz ixotu bear. Aurreratu gaitezen arnasa emotera justizi on baten bidez. Kristau guztion arloa dogu izan be. Danok egiten dogu Eliza. Gurea bakarria bada egia ta zuzenbidea, zabaldu daigun alkar-berbeta sutsu ta bero bat.

Au maitasun zintzoa egiteaz, biderik errezena jaku ziur, ta baita itxaropengarriena. Beiñola ain bildurti bagara, geure fede txikiaren erruz izan da.

Jainkoagaz arkitzen bazara zeren bildur dozu? Orra ba. ikasi Kristoren dotriña ta gerokoan piztu zure fedea Bere grazi gartsu baten bidez.



Jontxu mutilla  
 prailleen aurrean  
 prest eta zur,  
 txapelduneri erantzutera  
 noiz igoko begira.  
 Aita, Uztapide ta  
 Basarri dauz eredu.

## BERTSOLARITZA BIZKAIAN

Euskalerrria euskalerrri danetik egin dira bertsoak, nire ustez. Ain sakon sentituten dogulako, edo ez dakit nik zer dalata, baiño ezin izan dot oraindik bertso bageko euskerarik neure irudimenera ekarri.

Gaur arte gizaldiz-gizaldi, belaunetik belaunera eldu iakuzan, ta gure zarren liburuetan —Peru Abarka jatort burura— aurkituten doguzan esakerak autortuten deuskue gaur orduko be ba zirala gure lurretan bertsoetarako prestaturik egozan adimenak.

Gaur arte eldu jakuzan muxika eder, neurtuak be beste ainbeste diñoskuela-koan nago. Ta izan be, gure agureak ezin izaten dabez ezelan be abestu, bertsoaren baten laguntasunagaz ezpada.

Oraindik erdi-ointsu izan ditugun bertsolarien artean bizkaitar bi aipa bear doguz: Bat Felipe Arrese-Beitia, ta Enbeita-tar Kepa bestea.

Lenengo au Otxandianoko semea zan, ta 1906-garrego urrillaren 16-an il zan. Ain zan ospetsua, ze, Menéndez y Pelayo berak esan ei eban ifioiz Arrese-Beitiaren olerki-lanak irakurtearren, pozik ikasiko leukela euskera. Il zaneko barria zabaldu zanean euskalzaleak zenbatean naigabetu ziran konturatzeko, Zamarripa-ren olerki zati bat ipiñiko dot emen:

Il zara? Il zara, Arrese, Arrese andia,  
 Euskera Ama zarraren olerkaria?

Arrese il dala?

Biotzak diñeust ezetz... Ia zeuk be, ia,  
 Esan eidazu, Arrese, zeure il-barria  
 Egia eztala!

Beste au oraindik ezagun dabe geienak. Enbeita-tar Kepa dogu. Muxikakoa. Gaur egun ondo ezaguna dan Balendin-en aita. Gaur bertan, euskal leia moteltzen badoa be, entzun daikeez noizik bein bere ezpafietatik urten ziran bertso-aapaldiak. 1942-garrego abenduaren 12-an eman zuan bere azken-arnasa. Euskal eleak izan dauan bertsolaririk gorena lez ospatzen dabe askok. Ta olan diño, esatebaterako. A. Onaindia karmeldarrak bere "Gure Bertsolariak" liburuan. "Oraindik ez da agertu Muxika-ko Urretxindorra (Kepa-gaitik diño) baizen gozo, sakou, giartsurik, eta ainbeste idatzita emon dauskunik".

Gaur, Bizkaian, Azpillaga, Lopategi, Mugartegi... ta beste asko ta asko doguz ondo ezagunak. Ta gazte-gazteak be badatoz ugari. Onexek dira biarko geure itxaropena. Azkeneko aldi onetan, beti gelditu dira txapeldun giputzak, baiña laster txapela gure artean izango dala-koaren itxaropena, bizia da gure barruan. Kepa, Urretxindorraren aberastasun joriak, kimu barri asko emon dauz, ta orreri begira, zai, gu.

Kepa zanaren gaurko arnariak asko ta asko dira. Izan be, gaurko Bizkai-ko bertsolari geienak —gazteak batezbe— edo Enbeita-tarrak edo muxikakoa dira. Bere

indarraren aurreneko uztak bere seme-alabak izan ziran. Baiña ez da amen dana gelditu. Bere oñordekoak dira baita be: Deunoro Sardui pipertsua, Ireneo Ajuria gaztea, Abel Enbeita, ta gaur arte ume abotsez gozoro entzun al izan genduan Jontxu. Onako bi aukerak Balendin famatuaren semeak dozuz. Azkenengo au, ondiño bederatzi urte bakarrik ebazala Gernikako plaza erdian agiri iakun; bere abots me, zoliarekin mirari bat bezela entzun genduan. Gaur, plaza, zarata ta txaloetatik iges egin dau. Ikasten ari da. Oraindik orain entzun al izan deutsat, ta etorria ez jako galdu; baiña ezta-rria, len geiegi egiñaren damuz daukala esan geinke.

Amaitu orduko, mutil onen bertso pare bat. Ona:

Arrantzale gaixoak  
 beti dauz lanian,  
 arriskuko lanetan  
 uraren gaiñian;  
 makifiatxu bat alper  
 begira kalia,  
 aren arrañak merke  
 jateko ustian.

Arrantzaliak baño  
 obeto gagoz gu,  
 aren beste arrisku  
 emen ez daukagu.  
 Euren arraiñ ederrak  
 sarri gaituz poztu.  
 Gure arrantzaliak  
 daiguzan txalotu.

AZKENENGOKO ELEIZ BATZAR NAGUSIAN; ATZERTUA IZAN ZAN ERLIJIÑO-ASKATASUNAREN ALDEKO IRITZIA, TA ESPAINIKO GOTZAIK, BATZAR NAGUSIAK ARTUKO DAUAN ERABAKIARI BEGIRA GERTU DIRA.

Bai. Oraindik ezin dogu jakin, Espainiko katoliku ta katoliku ez diranen artean zelako artu-emonak izango diran. Espainian, beste katoliku ez diranen artean, ba-dira ia 30.000 protestante, ta erlijio-askatasuna etorri ezkerorriko danez—neurriak ipiñi bear. Orretarako, "protestanteentzako egoera" bat idatzita ei dago. "Egoera" onek, Joan XXIII-gnren, Paulo VI-gnren eta Batzar Nagusiaren askatasun gogoari jarraitu gura deutso, protestante onen orainarteko egoera debekatua arteztuaz.

Egian ibilliko bagara, ez daukogu zergatik ukatu, orainarte, arazo onetan, ezer gitxi egiña izan danik. Iru-lau gotzai ta erritzaiñek izerdirik asko bota dabe protestanteen egoera larria bigunduteko,

gozen, baiña, zoritxarrez, ez da olan izan.

Ez ei ziran gauza onen gain iritzi batekoak, emendik eta andik esaten danez.

Castiella ta Fraga-Iribarne, alegindu ei ziran naiko erlijio-askatasun au, "egoera" aparteko baten sartu naiean.

Azkanean, erabakia atzeratuten gogorazo eben, Erromako Batzar Nagusiak onetzaz zer diñon ikusi arte.

Egunerokoetan irakurri al izan gendunez, Gotzaiak be atzeratutea erabaki eben, baze Oviedo-ko Gotzaiak ifoanez, "egoera" onetan oraindik gauza guztiak ez dira aif ondo ikusten. Onek olan izanik, txarra izango leiteke "egoera" au onartutea. Dana dala, Espainiko Gotzai guztier ondo deritxale katoliku ez diranentzat "egoera" bat konpondutea.

#### EGOEBAREN ALDE

Azken lerro oneetan, irakurri leitekenez, Espainiko Gotzai danak "egoera" baten alde dagozela esan bearrik ez dago. Baiña, zelan leiteke au, onetariko Gotzai askok Ba-

tzar Nagusian erlijio-askatasunaren aurka jokatu badabe?

Munduko egunerokoetatik askok, Espainia ta Italia-ko gotzaiengan jaurtigi dabe errua.

Baiña. Oviedo-ko Gotzaiak berak aitortu dau, larogeko ogei ta bost bakarrik konformatu dirala erlijio-askatasuna atzeratu daian.

Ganera, ez dakigu, "egoera" ori ze modukoa dan, gitxi gorabera zeozer badakigu be. Gotzai ta ministruen batzuk zelan-alan erakutsi deuskue apur bat eta euren esanetik esan lei apur ori:

—Katolikuek legea euren alde izango dabe, lege ori

## Gertu bako EZKONTZAK

Ezkongaiak ez dabe bier gitxi eukiten euren senar edo emaztea topetan. Ez orixe! Amak, bere alabearen senarra aberatsa izatea nai izaten dau. Aitak, barriz, zintzoa eta biergiña. Izeba-osabak ostera, alegantea, dotorea eta tentea. Lantzian bein lagunen artean "señorito" agertzen dakiana. Enbidi emoten dabena.

Ori mutillen artean. Baiña, nork topa gaur neskati egoki bat? Nork topa neskati garbi, goxo, biergin, eztitsu, polit eta kozinera bat? Mirari da bene-benetan ori!

Baiña ori ez da izaten txarrena. Bein ezkontzara eldu ezkerorri, senar-emazte askok ez dabe ezer geiago egin nai. Diño: "Eldu gara. Orain frankil egon geinke. Eskuratu dot nai dotan guztia. Au nire poza... Orain bai ederto... Amaitu ziran neskalguntzako aukeratze-bier neketsuak. Orain datorrela ezta!

Kontuz senar-emazteak! Aukeratzea bakarrik ez da naikoa. Gero eutsi egin bear jako topatutakoari. Ez daiala iges egin ifiolaz be! Ezkontza ez da "orkonpon" egitea. Ezkontza eginbear aundi baten asiera da. Ezkontza bide luze baterako sarrera dozu. Ezin leike etzanda egon. Ez da deskantsu bat. Egia da ezkontza barruan ezti-denporak izaten dirala. Baiña ezti-denporak baiño neke-denporak sarriago izaten dira askotan. Eta ortarako, senargaia gertu egin bear da, gertu

Bizi barriak sortzekoan joan bear da ezkontzara. Geldi egoteko ez dira ezkondu, besteari laguntzeko baiño. Azi barriak erretoko ezkondu dirala ikusten dabenean, orduan maiñak. Jakiña, ba, makurtu egin bear, buztartu egin dira-ta. Eta orduan, emen datoz asarreak eta egon-eziñak!

Askotari barriz, ez mutillak eta ez neskak, inork ez dau barruan dabillan aize zakar ori kanporatzeko indarrik. Seguru; amesak joanda gero, bierrak orain! Ezkontzarako etziran preparatu. Auxe besterik ez jake pasatu. Gurasoak, ostera ez eutsen egirik esaten etxera etorrena aberatsa zalako. Itargian pentsaten egoten ziran. Euren lagunak beti barrezka "zorionak" emoten eutsezan. "Urte askotan... Aiii... zuek bai izango zarie zoriontsuak"—esaten eutsen erriko andra-gizon pipertsuak. Onela joan ziran ezkontzara: preparaziño barik. Jakiña: etxea ofiarri sendo barik, lurrera dator. Orain estuasuna ugari. Alkarrekin baketu eziña: odola bakoitzak berea dau-ta.

Errierta txiki onetan gelditzen badira, gaitzerdia izango da bakarrik. Baiña txarrena eta azkenengoa, ezkontz-austea izango litzake. Ezkontzako eginkizun aundienetakoa ba dakizue: senar-emazteak alkarri agindutako leialtasuna. Ezkontzakoan betirako emon eben berba alkarri. Ez urte batzuetarako bakarrik. Jaungoikoak orrela nai izan dau. Zer pasako litzake ezkontz-austea libre baltz? Nora joango litzakez semeak?

Ezkontzako eginbear nagusia semeak ekarri eta azitzea bada—ez ekarri bakarrik, edukatu be egin bear dira ziur—bidezkoa da gurasoak bizi diran bitartean biak batean bizi bear izatea. Ume koitxaduak bertanbera itxita gelditu ez eitezan eta senar-emazteen arteko maitasunak beti iraun egian, musturrik bako korapilloz josten dauz andra-gizonak. Ezkontzak maitasun buztarriz buztartzen dauz. Buztarri ariña, maitasunak leuntzen badauz.

Maitasuna, ara emen gurasoen alkarlokarri. Baiña ondo ibilteko ezkontzaurrean preparaziño sendo bat bear da.

ez  
izan  
bildurti  
erlijio-askasuna-  
gatik

baiña Joan XXIII-gna etorri bear izan jaku erlijio-askatasunaren bidea erakutsi eikigun.

Erroman, Aita Santuarengan, bakalordea izan zanak eta geuza Kanpoko Arazoetako Ministrua dan M. Castiella jaunak, guztiz ederto jokatu dau protestanteeri bear jaken itzala emon dagiegun. Lenengo, Gotzaien Batzarrak "egoera" au baieztu bear eban, gero ministruen esana jarraitu. Joan dan irailarako prest egongo zalakoan gen-

# EZ IZAN

## BILDURTI...

besteen kontra ez bada joango be.

—Beñiola bateko pekatiak eta erruak diranoi umil-umil aitortu (oraiñarteko erlijio-askatasun eza —esan gura dot—).

—“Egoera” au, ez da joango laterriaren aurka.

Gure erru ta pekatuaren aurrean itsuarena egitea, sua eztalki bategaz eztaltzea leiteke.

Olan, protestanteen egoera au ez doa bide artezatik, edo “Pacem in Terris”-ek markatu deuskun bidetik beintzat.

Ba-dago arrisku bat emen: bearraren bearrez, jatorikuna geure modura aldatu ta geure onerako bakarrik konpondu gauzea.

Ez ete dira ba naiko 30.000 protestante, emen erlijio-askatasuna gordeteko? Ganera, bitartean gizonak diranean, lumeroak ez daukeen zerikusirik. Auxe be rau diño Ruiz Gimenez jaunak: “egoera ori, bategaitik bakarrik egin bear leiteke”.

### SINISMEN EZA BABESTU

Gure erlijio katolikua ba besteko, besteen erlijio-askatasun eskubideak ostikopetu ta zapaltzen doguzan bakoitzean, gure sinismena ez dogu zaintzen, ez orixe, gure sinismen eza ta fede argala gorde baiño. Olan ba, aitortu leiteke, egiarengan dogun siniste mei onek, ez deuskula emoten indarririk —egizko itzalik— besteen erlijio-askatasuna bear dan eran errespetatzeko.

“Egoera” onen asmoa, atzerrietako protestante izentatuegan ez da ain ondo artua izan. Ba-dakie, gitxi gora-bera, asmo au nongo bideetatik dabillan.

Egoera orren gain egin diran aitorten eta atzalburuek, barriz, beste batzuk irikitari jarri dira, ba-ze antzianatik dabilta protestanteekaz anaitasun osozko artu-emonetan, egizko alkar-berbeta bat lortu billa.

Oraindiño oraintzuago, eleizgizon ospetsu batzuk egin dabezan agerpenen atzetik, Kataluñako zeinbat eleizgizon eta errikoak eskutitz bat idatzi deutsoe, katolikuak ez diranentzako, “egoera” orren agintzako diran Pla y Daniel Kardinala, Morcillo ta Muñozerro Gotzaieri.

Eskutitza era onetan dago: “Erlijio-askatasunarengan Erromako Batzar Nagusiaren —gaurko gizoneri, Espiritu Santuaren gogoia Batzar Nagusiak agertzen deusku— iritzia ikusita gero, katoliku ez diranentzako “egoera”-gaitik esan diranak esan diralako, ikaratuta gagoz”.

“Kondairaren lurrean bota diran erruzko aziak eta azi orreen ondoreak eztaltzea, parka ezinezko erru barri bat eta asko be txarragoa leiteke. Espaiñarentzat ondo etorri datorrenagaz, egokia jakunagaz, naste-borrastezko gauza bat konponduteak, ez leuskigu ezer onik ekarriko. Erlijio-askatasunaren zergaitiak argi agiri jakuz Batzarrean. Iritzi artezakaz jokatuten ez bada, erria arin konaturatuko da adarra jo jakola ta eleizgizonen izenak lurre-ratuta, Batzarrengan euren ustea ipiñi eben gogoak, artez illundu ta goibelduko dira.

Erromako Batzarrak Espaiñan aldeketari onik ez dauala sortu esango da, orraitio.

Gaur arte, sarri, gure sinismena eta fedeak bear bada arrazoi gitxi ta amarra asko euki dauz.

Askoren katolikotasuna, bere etxeok eta bere erriok katolikoak diralaketik jatorree.

Ba-datoz denpora barriak eta orduan, bakoitzak erantzungo deutso bere sinismenari. Gure inguruan danak dirala-ta aurrerantzean ez gara geu be katoliko izango, ez; izatez geure nai ta gogoz izango gara.

Eskutitz onen idazleen gogamena auxe da: “fedebako diren “egoera” orren ganetik, katolikuari lege aldetik mese-dea emotea, jokabide txarra deritxagu, beste errietako espaiñar mixiolarien biarraren galasorako da-ta”.

Labur esateko, erria “egoera” oneri baietza itxaroten dagola diño.

Eskutitz onek argi erakusten deusku nondik norakoak diran askoren asmoak. Artu-emon eta alkar-berbetan, arzetetasuna ta egia gura da.

Dana dala, “egoera” onen kontra dabilzanak be, ba-dira nonbait. Onek, argi erakusten deuskue, Eleizatza ez gitxi dakiela. Eleiza, batez be, ama on bat da, ta ama onek seme guztiak maite dauz, bai txar eta bai onak. Txarrakaz, edo obe, iritzi desbardiñezkoakaz, eta onakaz bat egin gaitzen. Guztiok batera —asko ta bat— izan gaitzen Aitaganako bidean.

Askok, Batzar Nagusiaren kontra joateko prest dagozala emoten dabe. Penagarria benetan!

### AURRERA GOAZ?

Danatar, “egoera” onek, gaur arteko katoliku ta fedebakoen artu-emoneri aurrerapen apur bat ba-dakartso:

—Gobernuaren partetik, protestanteen eskontzak on-tzat artuko dira.

—Izango dabe baimena eskolak altsateko —beti, ori bai, eleizgizonen baimenagaz—.

—Soldadutzan be, protestante gazteak euren artzaia izango dabe.

—Erriko arazoetan be, agintariak izatea ez jakee galasoko.

Batzarrak, taldeak eta aldizkariak egitea euren eskuetan egongo da.

Askatasun au batzueri bakarrik emotea ez leiteke ondo egongo. Kontuan artu bear dan gauza da auxe. Askatasuna ta pakea ausiezinezkoak dira. Ezin da, ba, bai bateri ta besteari ez. Beste era batera jokatuten badogu, oke-rreko bidera jo dogula esango neuke.

Paulo VI-gnak, jokabide onen akatsak igarriaz, olaxe ifotson espaiñar kardinal bateri:

“Ez izan bildurrik erlijio-askatasuna dala-ta. Espaiñiko gora-bera apartekoak ba-dakitaz. Baiña zuek Aita Santuagaz jokatatu bear dozue: ez izan ba eslijio askatasunaren bildurrik”.

